




BARREN

TOKIKOM



**Euskara batuaren arauak,  
xehe eta eskura**

# BARREN AZOKAko saltzaileek antolatuta

2018/10/26  
ostirala

Txokolatada  
18:30- 20:00



# Hemen naiz berriz!



Barixakua, urriak 19,  
17:30ean  
MAALAKO PARKEAN

Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Auzolan



EUSKO LEHIAKETA  
GOBIERNO VASCO  
EUSKAL GOBIERNUA  
Euzko Lehiaketa

# Euskaraldia Mendaron

Mendarok ere bat egin du Euskaraldiarekin, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den ariketan parte hartzera animatu ditu herritarrek Mendaroko Euskaraldia Taldeak; euskararen alde egotetik euskararen alde egitera, azken batean. Izena emateko lekuak izendatu dituzte herrian, eta talde-argazkiak egiteko eta bideo laburrak grabatzeko eskatu diete kuadrilla, elkarte eta taldeei, herritarren kontzientzietan eragin eta parte hartzera animatzeko. Facebook orrialdea ere sortu dute (Euskaraldia Mendaron), kanpainaren inguruko materia elkarbanatu eta bildutako argazki eta bideoak eskegitzeko.



Mendaroko hamaikakoa osatzen duten lagunak, ahobizi eta belarriprestekin: Javi Muñoz, Badr El Boughdadi, Lorea Cabello, Irati Mendikute, Gotzon Zulaika, Leonor Barreras, Jose Mari Riaño, Sonia Garcia, Juanjo Rey, Saioa Andonegi eta Ana Aranda.



Irati  
Mendikute

“Ahobizi izango naiz, euskaraz bizi nahi dudalako, eta horretarako, daki-gunok egin, egin behar dugulako. Kezkatu ninduten euskararen erabileraren inguruko datuek, eta larritu nintzen gure adin tartekoen artean zein gutxi egiten zen ikustean. Pena da”.



Leonor  
Barreras

“Belarriprest izango naiz ni. Euskarara ulertzeko gai naiz, baina hitz egitea kosta egiten zait. Konturatzen naiz euskaldunek erdaraz egiten di-datela, ezinean ikusten nautelako, baina niri euskaraz egiteko eskatu nahi diet, nik ikasteko. Gure lotsak ere sobera daude”.



Badr  
El Boughdadi

“Ahobizi izango naiz. Nire aurpegia ikustean erdaraz hasten zaizkit asko eta asko, euskaraz ez dakidala-koan-edo, eta ulertzekoa da hein batean, baina badakit, eta egin nahi dut. 8 urterekin iritsi nintzen hona, eta urtebetean ikasi nuen. Ezinik ez dago beraz”.

EUSKARALDIA ariketan izena emateko: ‘euskaraldia.eus’ web orrian, udaletxean (harreraren nahiz liburutegian) eta ondorengo leku hauetan: Ormola, Txirristaka eta Lagun Betikoak tabernetan, eta Leire jantzi dendan, Roteta supermerkatuan eta Morroskillo liburu dendan.



## Zaindu dezagun elkar

tza ohiturak errotik aldatu eta euskarari izan ohi ez duen garrantzia emango baitio. Gure harremanak egunerokotasunean euskartzeko bidean denbora horretan euskaraz bizitzea ez da, ez, erronka makala.

Belarriprest izango direnek pauso garrantzitsua emango dute, hizkuntza bat guztiz ez menderatzearen erosotasuna atzean utzi eta euskarara irekiko baitira. Ahobiziek, berriz, aurreiritziak gainditu beharko dituzte, orain arte gaztekeraz edo frantseseraz agurtu, ezagutu edo laztandu dituztenak euskaraz agurtu, ezagutu edo laztantzeko esfortzu bat eginez. Harago joateko betebeharra ere izango dute, baina, ahobiziek, belarriprestak eroso

sentituko diren uneak eta guneak sortu beharko baitituzte. Eta hain zuzen hori izaten da askotan alde batera utzi ohi duguna, albokoaren sentimenduei lehentasuna ematea. Beraz, hemen luzatzen dizuet hamaika egun horietan betetzeko beste erronka bat: ahul sentitu daitezkeen emozioak eta beldurrak erdigunera ekarri, eta euskara ziurtasun falta horien babesgune bihurtzea, enpatia horretatik hasi eta sentazioei behar duten garrantzia ematea. Euskara ez baita gure harremantzeko tresna bihurtuko komunitatearen zati batek ez badu bere burua ahaldunduta sentitzen, eta hori askoz errazagoa izango da bai belarriprestak eta baita ahobiziak ere prozesu emozional horren partaide baidira. Euskaldia ez dadila hizkuntza kontua soilik izan. Zaindu dezagun elkar.

Egun garrantzitsua izango dira eskal komunitatearentzat azaroaren bukaera aldera iritsiko direnak. Hamaika egunez hamaika ahobizi eta belarriprestak beteko dituzte Euskal Herriko txoko ezberdinak euskara eman edota jasotzeko. Ederra izango da Euskaldia, azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkun-

*“Euskara ez da harremantzeko tresna bihurtuko komunitatearen zati batek ez badu bere burua ahaldunduta sentitzen”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskal Lehenen Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR  
UROLA  
AZUNTAMENTO

LAGUNTZAILEAK:



MENDARO  
2000



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## ▶ BIHOTZAREN DISKETEAN GORDETA

Umeak gineneko argazki gehienak propio etorritako –auskalo nondik!– argazkilariak egin ohi zituzten: “Atzekoa, mesedez, aurrean jarri, eta orain geldirik egon”. Eta gu, txintxo-txintxo, arnasari eutsi, argazki-makina barruko flashak gure begitxoak ez itxiarazteko, luze eginda egoten ginen gero argazkian geure itxurari (txanga pistolak ikusgai; belau-buruan, askotan, esparatrapua; gainontzeko lagunekin tiobiboen ondoan) erreparatzeko. Orduantxe jabetzen ez baginen ere, bizitzak erakutsi digu –orduak, paperean egindakoa; egun, digitalean; hemendik urte batzuk,

auskalo, non?– nork bere argazki bilduma egingo duela. Inoiz, koloretan, askotan, zuri-beltzean, ordukoen antzera, baina hauek besteek ez bezala, arima, ahotsa izango dituztela, eta herriko jailetan barik, edozein egunetan egingo (Sebas, Lariz) ditugula, eta gogora ekarriko. Izan ere, bihotzaren lekutxoan leku handia duzue.

Juan Luis Mugertza

## ▶ ORAIN PRESOAK

Lerro hauen bidez elgoibartarrak animatu nahi ditugu bihar, hilak 20, *Orain presoak* lelopean Donostian egingo den manifestazioan parte hartzera. Garai baten aurrean gaude eta mendekua ezin

da espetxe politikaren oinarria izan. Ordua da urruntze politika bukatzeko, ordua da preso gaixoak beraien etxera bueltatzeko, ordua da legea bere osotasunean euskal presoeri ere aplikatzeko. Elgoibarren autobusa antolatu dugu Donostiara joateko. Irteera 16:00etan izango da King Kong zubitik. Izena Iturrin, Ibai Ondon edo Lanbroan eman daiteke. Animatu!

Sare Elgoibar



**LAGUNAK**  
colchonera textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**943 744 457**

## GOLIATH COMPLET LASTAIRA

- Haurraren lehen hilabeteetan, gorputza buruz behera geratzea saihesten du.
- Kotoi organiko zorroa, babestutako zorroa, transpirablea eta iragazgaitza.
- Elementuak umearen beharren arabera jarri edo kendu ditzakezu.



Lastaira, 15° duen toki anatomikoa eta zilindro-er-labingarrak

## LAGUNDUKO AL DIGUZU ELGOIBARKO IZARRAREN

# TONBOLA OSATZEN?

Aurreko bost urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Ehunka erregalu banatzea da gure desioa, baina horretarako zure laguntza behar dugu.

Animatuko zara tonbolarako erregalua ematera?

Animatzen bazara, esan, ahal duzun azkarren, tonbolarako erregalua emateko prest zaudela. Abenduaren 3a izango da erantzuteko azken eguna.

Eskerrik asko!

Harremanetarako:  
[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)  
943 741 626



## Taupadak 'Logikomitoak' antzezlan estreinatuko du Bolatokiko parkean urriaren 26an

**4** O. urteurrenaren harira, *Logikomitoak* antzezlan estreinatuko du Tapada taldeak urriaren 26an, 22:00etan, Bolatokiko parkean.

Antzezlan honetan Euskal mitologiako pertsonaiaetan oinarritu dira errealitate eta fantasiarekin jolastuz. Baso ilun eta beldurgarri batean ekaitz baten ondoren berriz sortzen da bizitza, eta besteak beste, Amalur, Tartalo, Basajaun, Aker eta sorginak agertuko dira. "Baina antzerkiko beste une batzuetan, pertsona gisa ere ikusiko ditugu. Esaterako, Tartalo begi bakar izatetik itsu gelditzera pasatuko da, eta lehen, iseka aritzen zitzaizkionek tratu hobea eskainiko diote. Modu horretan errealitatea irudikatu nahi izan dugu", azaldu du Edurne Lasa obraren zuzendariak.

Guztira, 32 pertsonak hartuko dute

parte antzezlanean. "Jende dexente behar genuen momentu zehatz batzuetan eta figurazioan umeek eta gurasoek hartuko dute parte, baita Haritz Dantza taldekoek ere. Txirula eta eskusoinu-doinuak batuko ditugu zuzenean. Taldetik, berriz, 14 aktore ariko gara".

Bolatokira joaten direnek, beraz, askotariko egoerak ikusiko dituzte.

### Bi antzezlan asteburuan

Antzerkiak, baina, beste bi hitzordu izango ditu aurrez Elgoibarren. Gaur, ostirala, 13 y *martes* antzezlan ikusi ahal izango da Herriko Antzokian, 20:30ean. Leire Ucha, Ugaitz Alegria eta Diego Perez aktoreek publikoari barrea eragitea dute helburu. Igan-dean, urriaren 21ean, *Mendi tontorrean* lana izango da umeentzako, 16:30ean. Mendi gidari baten eta



haren bezeroaren istorioa irudikatuko dute Iraitz Lizarraga, Alfonso Diez eta Aitor Fernandino aktoreek.

## Eibarko suhiltzaile etxea Elgoibarrera ekartzea proposatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak

Suhiltzaileek Gipuzkoan ematen duten zerbitzua hobetzeko hainbat neurri proposatu ditu Gipuzkoa Babestu 20\_30 Plan estrategikoak. Egungo suhiltzaile etxeen kokapena 80ko hamarkadan zehaztua da, eta ordutik egin diren bide-azpiegitura berrien eraginez, Oñatiko, Legazpiko eta Eibarko suhiltzaile etxeak lekuz aldatzeko beharra ikusi dute. Eibarko Elgoibarrera ekartzea eskatu dute. Eibarko suhiltzaileek Debabarrena guztiari ematen diote zerbitzua, baina plan estrategikoaren arabera, egoitza oso urruti dago Debatik eta Mutrikutik. Miguel de los Toyos Eibarko alkatea kezkatuta agertu da aldaketa proposamenarekin. "Mutrikuk Markinako parkearen zerbitzua jasotzen du eta beste aukera bat pentsa daiteke Eibar kaltetua izan ez dadin".

## Euskaraldia ariketaren entsegua egin dute DanobatGroupeko ia 500 langilek



Euskaraldia ekimena azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri osoan egingo bada ere, DanobatGroupek Euskaraldia bere lantokietara eraman zuen urriaren 1etik 5era. Ahobizi (395) edo belarriprest (78) rola aukeratu eta bakoitzak hartutako konpromisoaren arabera jokatu zuten egun horietan 493 lankidek, lanean ohikoak diren egoeretan. Egunotako esperientzia "oso positiboa" izan dela esan dute arduradunek, elkarren arteko hizkuntza ohiturak aldatzea posible dela ikusi dutelako. Bestalde, euskara batuak 50 urte bete dituela eta Arantzazun Euskaltzaindiak egin dako biltzarrean parte hartu du DanobatGroupek. Ibon Serrano ingeniariak *Euskara batuaren erronkak makina-erremintan: asko egin dugulako daukagu asko egiteko* hitzaldia eman zuen.

## Asfaltatze lanak egin dituzte Mintxetan, Basarten eta Erretsundin

Mintxetan, Basarten eta Erretsundiko zubian asfaltatze lanak egin dituzte asteon. Asfaltos Urretxu enpresak egin ditu asfaltatze lanak. 1.370 metro koadroko hedadura izan dute eragina lanek. Zehazki, Basarte auzoko hainbat kale eta bide, Mintxetara igotzeko errepidea, Mintxetako aparkalekua eta autopista gainetik igarotzen den Erretsundiko zubiaren zoruan ipini dute asfalto berria. Udalak 33.200 euro bideratu ditu lanetarako.



## 'Raid Pandemonium' eta 'Ibai grande cuore' lanak aurkeztuko ditu Jairo Berbelek Eibarren

*Raid Pandemonium* dokumentala estreinatuko dute bihar Eibarko Coliseo antzokian, 13:00ean eta honekin batera *Ibai grande cuore* ikus-entzunezko laburra proiektatuko dute. Jairo Berbel elgoibartarrak egin ditu izaera solidarioa duten bi lanok. Marokon egindako automobil lasterketa solidarioa erakusten du lehenak, eta bigarrenak, gaixotasun arraro bat duen Ibai ume elbartarraren amets eta ilusioak islatzen ditu. Sarrerak 2 euroan jarri dituzte salgai eta diru hori gaixorik dauden umeen terapien gastuei aurre egiten laguntzeko erabiliko dute.



## Mausitxa Euskal Herriko txapelkun

Euskal Herriko Gazta Txapelketa Idiazabalen egin zuten estreinakoz, Idiazabalgo Abeltzainen Elkarteak, Artzain Gaztak eta Idiazabalgo Udalak elkarlanean antolatuta. Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako lehiaketetan lehen hamar postuak lortutako gaztagileak izan ziren finalean, 40 guztira, eta epaimahaiak Elgoibarko Mausitxa baserriari eman zion lehen saria. Euskal Herriko Txapelketa irabazi duen hirugarren aldia du Mausitxak, iaiz eta duela hamahiru urte ere irabazi zuelako.

## 'Ihes' liburua kaleratuko du laster Jasone Osorok

Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibartarrak *Eskularru Beltzak* gazteei zuzendutako bildumako *Ihes* liburua aurkeztu du asteon ETBko *Gure kasa* saioan. Lau liburu ditu argitaratuak sorta horretan eta laster kaleratuko du azkena. Liburu bakoitzak istorio eta abentura ezberdinak izan arren, boxeoa dute oinarri. Izan ere, boxeoa bizitzaren metaforatzat erabili du idazleak.

## 'In dialogue' dokumentala aurkeztuko du zuzendariak

Elgoibarko Herritarren Bizikidetzak Taldeak eta Ongarrik giza-eskubideen inguruko film emanaldiak antolatu dituzte Elgoibarko Udalaren laguntzaz. Atzo *Les Humanitat* dokumentala izan zen ikusgai, eta urriaren 25ean, 21:30ean, Xuban Intxausti zuzendaria etorriko da Herriko Antzokira *In dialogue* aurkezttera. Dokumentalak elkarriketak duen garrantziaz hitz egiten du Ipar-Irlandako gatazkan oinarrituta.

## Buffalo taldea igandean Kultur Etxeko sotoan

Sinuosek antolatuta, Buffalo taldearen kontzertua izango da igandean, urriaren 21ean, 19:00etan, Kultur Etxeko sotoan. David Gorospe (bateria), Joanes Ederra (baxua) eta Ander Ederrak (gitarra) osatutako hiruko instrumental zarauztarra da Buffalo. Jazz, funk eta rock doinuak eskainiko dituzte besteak beste, eta inprobisazioa da beren emanaldiak berezi egiten dituen ezaugarrietariko bat.



## ▶ ANDRES ALBERDI

EUSKALTZAINDIAREN  
EUSKARA BATUAREN  
ESKULIBURUAREN EGILEA

Filosofian lizentziatua da Andres Alberdi Gorostiaga (Getaria, Gipuzkoa, 1950), eta irakaskuntzan eta testugintzan eman ditu erretiroa hartu arteko urteak. DBHko eta Batxilergoko Euskara eta Literaturako hainbat ikasliburu eta gramatika idatzi ditu, Elgoibarko Instituturako lehenengo eta Hezkuntza Sailaren EIMA zerbitzurako gero, eta 2014az gozotik, Euskaltzaindiaren Euskara Batuaren Eskuliburua batzordearen koordinatzailea eta erredaktorea izan da. Hain zuzen ere, gaur hamabost aurkeztu zuen Arantzazun zortzi laguneko taldean ondu duten liburua [Interneten ere badago kontsultagai, 'www.euskaltzaindia.eus' webgunean]. Aurrez, uztailaren 20an, Euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak. Gauza asko da Andres Alberdi, baina denen ginetik, bat: euskaldun militantea.

- AINARA ARGOITIA -



◆ **Ez zara berria Euskaltzaindiaren bueltan, baina nola hartu duzu euskaltzain urgazle izendapena?**

Pozik. Errekonozimendua den heinean, beti da pozgarria. Euskaltzaindiaren bueltan, baina, ez naiz horren aspaldikoa. Euskaltzaindiko egitekotan jubilatuta bezperan hasi nintzen kasik, 60 urterekin. Nahiko atipikoa dena, bide batez esanda, gazteago sartzen delako normalean jendea Euskaltzaindian.

◆ **Gazteak? Beste irudi bat nuen.**

Bai, lehen ileran dauden euskaltzainei dagokienez; horiek sarri adintsuak dira. Baina unibertsitatean tesiren bat egin baldin baduzu, nahikoa normala da Euskaltzaindiaren batzorderen batean sartzea ere. Nire kasua beste bat izan da, hala ere. EIMAn ari nintzela Euskaltzaindiak proiektuan zeukan Zientzia eta Teknika

# “Geuk izan ditugun ezinei erantzun nahi izan diegu, besteon lana errazteko”

Hiztegia sortzeko batzordea, eta hala, talde bat sortu zuen matematikako, fisikako, kimikako eta beste zientzietako terminologia aztertzeko. Hortxe sartu nintzen ni lehenengoz Euskaltzaindiko lantalde batean. Eta horretan ari nintzela etorri zitzaidan Euskara Batuaren Eskuliburua egiteko desafioa. Euskaltzaindiaren arauak liburu batean itxuratu eta hori dena bete-garria eta nazkantea izan gabe jendeari nola eman aztertzeko eskatu zidaten 2014an, eta idatzi nien proiektua.

Proiektu haren isla da liburu hau. Hiru urte eta gehiagoan aritu gara lanean zortzi lagun: Paskale Rekalde, Irene Arrarats, Joxe Austin Arrieta, Igone Etxebarria, Alfonso Mujika, Patxi Petrirena, Allande Sokarros eta ni neu.

◆ **Eskuliburua hau zeinentzako da?**

Euskaldun hiztun eta idazle alfabetatuentzako. Ez da euskara ikasteko metodo bat, ez da gramatika bat, ez da estilo liburu bat. Arauak modu erraz batean kontsultatzeko bidea eman nahi izan diegu





zuen moduko pertsoneri, egunero euskararekin lanean dabiltzanei, zalantzak etengabe sortzen direlako eta momentuan behar izaten direlako argibideak. Era berean, eguneroko jardunean sortzen diren erabilera txarrak zuzentzeko *vademecum* bat ere bada. Adibidez: Zelan esan behar dugu: “Bost euroan” ala “bost eurotan”? Bada, biak dira gramatikalak, baina tradizio ezberdinetakoak. Iparraldean mugagabeen erabiltzen dute, eta guk, singularrean: “Bost euroan”. Liburua Interneten ere badago, eta liburuan jaso ez dugun informazioa ere bildu dugu han.

#### ◆ Zein premiari erantzun diozue?

Gure euskalgintzako ibilbidean geuk izan ditugun zalantzei eta ezinei erantzun nahi izan diegu, besteek ez dezaten guk hainbeste denbora galdu bide horretan.

#### ◆ Zein izan da zure lana zehazki?

Asto-lana. Lehendabizi, Euskaltzaindiak daukan Jagonet zerbitzuan dauden 600dik gora galdera-erantzunak hustu eta ordenatu nituen, eta gero, gauza bera egin nuen arauekin. Horrekin osatu nuen dokumentuaren bizkarrezurra. Zazpi alorretan banatu nuen lana (lexikoa, morfologia, sintaxia, kalkoa, ahozkeria, ortotipografia eta onomastika) eta A-tik Z-ra jarrita banatu nien besteei, zakua astindu eta egin beharreko zuzenketak eta ekarpenak egin zitzaizten. Horiek denak batu, garbira pasatu eta berriro itzuli nien dokumentua, denen onespena jasotzeko.

#### ◆ Normatiba horretatik kanpo geratzen diren esamolde, egitura eta abarrek izango al dute gerora sarrerarik?

Bai. Euskaltzaindiak eskura jarri du orain arte landutakoa, baina badaki bide hori bukatu gabe dagoela eta denon artean egin behar dugula. Desiragarria zera litzateke: euskararekin lanean ari diren profesional horiek eguneroko lanean dituzten zalantzei ahalik eta azkarren erantzuteko lantalde bat sortzea. Izan ere, euskararen eremu berria zuek, kazetariok eta, urratzen duzue Euskaltzaindiak baino lehen. Prentsan edozer gairi buruz idatzi behar izaten duzue, eta azkar, eta hizkuntza guztiz moldatuta izan behar duzue edozer gauza eroso adierazteko.

#### ◆ Egingo zeniguke Euskaltzaindiaren argazki bat?

Euskaraz arduratzen den erakunde ofiziala da Euskaltzaindia, eta euskararen inguruko ikerlanak egiten eta babesten ditu. Hizkuntzaren normalkuntzarako arauak ematen ditu Euskaltzaindiak, eta egiturari, bi talde nagusi daude: euskaltzain osoen taldea eta euskaltzain urgazleena. Euskaltzain osoak dira erabakiak hartzen dituztenak. Normalean 24 izaten dira, baina orain, arauetan egin zuten aldaketa bat tarteko, gehiago dira, behin 75 urte egin ez gero, emeritu bihurtzen direlako euskaltzain osoak eta emeritu bakoitzeko berri bat gehitzen delako taldera. Gaur egun, 24 euskaltzain oso daude, eta bost emeritu [emerituak ere euskaltzain oso dira, baina eginkizun batzuetatik libre daude]. Euskaltzain urgazleak, berriz, laguntzaileak gara. Batzordeetan aritzen gara enkargatutako lana egiten, hori delako Euskaltzaindiaren lan egiteko modua, eta batzorde horiek euskaltzain osoek zuzentzen dituzte. Euskaltzain ohorezkoaren figura ere badago: normalean 75 urtez gorakoak dira euskaltzain ohorezkoak, euskararen alde egindako lanagatik Euskaltzaindiak berak nabarmendutakoak.

*“Batua-euskalkiak eztabaidan arazoa terminologian dago; jendeak ez daki zer den euskara batua”*

#### ◆ Prestigioaren ikuspuntutik-eta, Euskaltzaindia beharrezkoa dela inork gutxi jarriko du zalantzan, baina nago ka-lean ez ote duten askok oso urrutiko sentitzen. Zer diozue?

Orain 50 urte Euskaltzaindiari eman zitzaion egitekoa ere halakoa zen. ‘Euskalkiak daukagu; ez daukagu hizkuntza bat’ esan zitzaion, eta erreferente teoriko hori gorpuzteko, euskara batu estandarri

forma emateko eginkizuna jarri zitzaion. Lan teknikoa izan da. Beste modu batean esanda, normatibizatze lanean jardun da, baina Euskaltzaindia bera ere konturatu da pausoa eman behar duela eta normalizatze bidean jarri beharra duela orain. Horixe da Andres Urrutiak esaten duena akademiak ate eta leihoak zabaldu beharra duela dioenean. Aparatua martxan dago, denok onartzen dugu, baina euskaraz, egin, egin behar da, eta idazle, kazetari, itzultzaile eta euskaraz egiten duten beste guztien zerbitzura jarri behar gara lanean. Horiekin batera egin behar da lan hemendik aurrera, hizkuntza honek izan dezan engranaje egokia, izan dezan txispa. Euskaldun oso den horrek egin behar du euskara batua, bere tokitik, bere ikuspuntutik eta bere euskalkitik.

#### ◆ Efemerideen urtea da: ehun urte bete ditu Euskaltzaindiak eta berrogeita hamar urte euskara batuak. Zer dugu ospatzeko?

Asko. Euskalkiak zirenak hizkuntza modura interpretatzen ditugu eta hori sekulako abiapuntua da. Sistema osoa eta biribildua daukagu eta gizartean onartua, gaur inork ez duelako zalantzan jartzen euskara batua beharrezkoa den ala ez.

#### ◆ Hala uste al duzu? Ez dakit ba ez ote dagoen inoiz baino biziago euskara batua-euskalkiak eztabaida.

Nik uste dut arazoa terminologian dagoela; jendeak ez dakiela zehatz-mehatz euskara batua zer den. Beharbada Euskaltzaindiak ez du asmatu zer den azaltzen. Euskara batuaren eginkizuna zein den esan digu, baina ez du kasuistikarik ireki eta iritzi ustelak sortu dira. Zuk emaiozu norbaiti testu bat Iparraldeko moldean eta eskatuiozu euskara batuan jartzeko. Emaiozu, esaterako, hau: “Aurten fite igaro dira bestak”, eta intuitiboki denok, ia denok, honela emango dugu: “Aurten azkar igaro dira festak/jaiak”. Baina bestea zer da ba? Bestea ere euskara batua da, baina gertatzen dena da euskara batu formaletik ari garela pasatzen euskara batu soziologikora, hau da sozialki onartua dagoenera, Hegoaldeko joerara azken batean. Gauza bera gerta-



tzen da beste honekin ere: "Gura duzun legez". Euskara batuan jartzeko eskatuta, gehienok "nahi duzun bezala" jarriko genuke. Zergatik, baina? Hori ere euskara batua da. Kontua da euskara batua den sistema erreferentzial horretara nor bere euskalkitik arrimatzen dela. Bizkaitar batek "gura" bereagoa duela, ba erabil dezala, eskubide osoa duela eta gainera bizkaiteraren kolorea emango diolako batuari, baina hori bai, egin dezala kontu norengana iritsi nahi duen eta komentatzen edo ez, "nahi" zabalduago dagoelako. Kontzeptualizazio hori ez dugu landu, eta hor daukagu arazoa, baina garbi izan dezagun gauza bat: euskara den guztia estandarera eramanez daiteke.

♦ **Tokiko batuaz berbetan entzun genituen Arantzazun ere, baina tokiko batua euskara batua da, ala?**

Batua baldin bada, bai. Gertatzen da alfabetatu gabe gaudela eta arrotz egiten zaizkigula molde batzuk. Idazten den hizkuntza batek bi kondizio behar ditu: batetik, jendeak alfabetatuta egon behar du ulertzeko, eta bestetik, idatzizkoa bada, batua izan behar du ezinbestean. Bi premisa horiek onartzen baldin baditugu, nolatan ari gara gu idatzizkoan fonetismoei lekua egiten? Sistema unitarioa bada, denok berdina idatzi behar dugu, eta fonetismoak saihestu egin behar ditugu, ahozko moldekoak direlako. Denok alfabetatuta egongo bagina, ez legoke txoke hau, denok jabetuko ginatkeelako euskara batua eta euskalkiak osagarriak direla. Badiharduguk proposatzen duena ez da logikoa. Elgoibarren, 'ts' eta 'tz' ez dira bereizten ahozkoan eta zergatik bereiztu behar ditugu orduan idatzizkoan? Hasi orduan dena 'tz'-z idazten! Elgoibarren, "h" ahoskatzen al da? Ez, ezta? Hasi orduan "h" guztiak kentzen idatzizkoan. *Maremagnun* horretan kontraesan asko sortzen dira.

♦ **Batzuek esango dizute, baina, jende helduak errazago ulertzen duela hori bestea baino.**

Ez da egia. Jende hori berdina zaio "ditu" edo "dittu" irakurri. Ohituta daude "ditu" entzuten eta badakite ahozko

kodea eta idatzizkoa bereizten. Erdaraz ere "soldado" ikusiko dute idatzita, baina "soldao" esango dute, eta besterik gabe ulertu eta onartuko dute. Eta andaluz bati berdina gertatuko zaio gaztelaniaz. Era batera hitz egingo du, baina beste batera idatzi, eta hala ere, ez du izango guk daukagun borroka hori buruan. Egoki bideratu ez dugun zerbait da, bistan da. Aspektu politikoa ere ez dugu aipatu, baina bada aipatzekoa. Nazio bakoitzak, herri bakoitzak, hizkuntza propioa bakarrik dauka normalean, baina guri zenbat kostatzen zaigu hori ulertzea? Funtzio unitario horrek ere berez bandera izan beharko luke, baina ez dakit zenbateraino baliatzen edo afanatzten dugun. Sekulako identitate-indarra da hizkuntza, eta identitate baten bila joan beharrean ematen du ari garela identitatea zatitzen. 'Ni bizkaitarra naiz, eta gainera, markinarra'. Baina bizkaiteraren aurretik ez al da ba euskara? Hori da gure enborra, baina adarretatik gabiltza, eta ez dakit zergatik.

*"Euskaldun izan nahi badugu, militante izan behar dugu, eta hori ahaztuta daukagu"*

♦ **BARRENen nola egin beharko genuke?**

Elgoibarko moldeari ez diot nik BARRENen tokirik topatzen. Zer lortu nahi dugu horrela idatzita? Zer markatu? Nik sekula ez dut sentitu getariartasuna markatzeko beharrik nire hizkeran. Iruditzen zait askotan eskasia bat topatzeko dela. Jende askok bere euskalkira jotzen du, nahi duen edo ahal duen moduan idazteko. Erreferente teorikoa, hau da euskara batua, ez du menperatzen eta bestera jotzen du inork kargu hartu ez diezaion. Nik uste dut eztabaidarako guneak sortu behar ditugula eta hitz egin gai hauetaz.

♦ **Normalizatu bako hizkuntza da gurea. Euskaldunok egin behar dugu ahalegin bat euskaraz aritzeko bizitzako maila guztietan. Ahalegin hori barik inertzia sarri erdarara eramaten gaitu. Batetik dugu hori, eta bestetik, geureari kritika asko egiteko joera. Soluziorik ba al du gureak?**

Bai, badu: alfabetatzea. Jende asko dago Elgoibarren ere oso goxo bizi dena bere egoera diglosikoan. Etxean euskaraz egiten dute, eta hortik kanporako egin behar guztietarako erdarara batua dute. Zertarako alfabetatu euskaraz? Duten euskara *rakittikoa* izan arren, balio die eman nahi dioten funtzio domestikorako; funtzio inportanteetarako, erdarara daukate.

♦ **Euskararen erabileran motelaldi bat erakusten dute kale neurketek. Espero zitekeen eboluzioa al da?**

Espero ez dakit, baina desio ez behintzat. Sekulako amorrua sentitzen dut euskal eremuan ikasitako bi lagun edo neure ikasle izandako bi erdaraz entzuten ditudanean. Nolatan ez dugu asmatu transmititzen hizkuntza batek sentimendu bat ere baduela, hizkuntza batek identifikazio bat ere baduela? Pattalaldi bat tokatu zaigu orain, baina ez da hizkuntza mailan bakarrik. Nazio eraikuntzan ere hala gabiltza.

♦ **Baikorrak izan behar dugu, ilusioa transmititu behar dugu euskarara ekarriko baditugu. Lortzen al dugu? Nola ikusten duzu euskalgintza?**

Euskaraldia, Korrika, Bertsolari Txapelketa... beti datoz ondo eta baliatu behar ditugu, baina ezkorra naiz batzuetan, iruditzen zaidalako jende askok egiten duena antzerkia dela. Egin beharrekoak dira horiek guztiak, baina gogoeta batera eramanez behar gaituzte, kontzientzia-hartze bat ekarri behar dute. Alderdi politikoei eta denei eskatu beharko genieke gogoeta serioa egiteko eta postura hartzeko. Euskaldun izan nahi badugu, militante izan behar dugu, eta hori ahaztuta daukagu; jendea ez dago militante izateko. Euskaldunok bagara, euskaraz ari garelako da; bestela vascoak gara.



Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**Txakur kakak kalean:** “Nazka-nazka eginda nago horrenbeste txakur kakarekin. Ia egunero zapaltzen du inguruko norbaitek txakur kakaren bat eta horren erantzuleak txakur jabeak dira, ez direlako arduratzen kakak jasotzeaz. Ez dakit nork izan behar duen hori zaintzeko ardura eta isunik jarri behar ote duten, baina hala bada, zorrotzago ibili beharko lukete; eta jabeek, nola ez, txakunago”. Beste irakurle batek jakinarazi digu joan den astean pista beltzaren gaineko igogailuaren ondoan kaka pilo handi bat zegoela. “Kamara ere badago igogailu gainean, eta seguraski argitu daiteke zeinek utzi duen”. Beste irakurle baten mezua da beste hau: “Pedro Muguruzatik Gabriel Krutzelaegi kalera dagoen trenbide gaineko pasabide eta eskaileretan astero txakur kaka berri bat egoten da, bide erdian. Garbitzaileek ez dituzte garbitzen, eta kaka 20 egunez egoten da jendeak zapaldu eta euri eta eguzkiak desegin arte. Auzokideak kokoteraino gaude txakur jabeek beraien txakurren kakak ez jasotzeaz, eta gai honetan zerbait egitea eskatzen diogu, mesedez, Udalari”. Udaletik adierazi digute isunak egon badaudela, baina txakurrak kaka egin eta jabeak han uzten duen momentuan harrapatu behar dituela udaltzainak isuna jartzeko eta oso zaila dela hori zaintzen.



**Zabor poltsak errekarara:** Santa Ana kaleko bizilagun batek esan digu bere etxeko leihotik errekarara begiratuta zabor poltsak ikusten dituela. “Poltsak eta zaborrak hor egoteko jendeak leihotik bota ditu. Zabor edukiontzia etetik gertu izanik, alferkeria hutsa da. Gainera, ez diote inolako garrantzirik ematen herria garbi mantentzeari. Ez al du inork neurririk hartu behar jorkabide hauen aurrean?”. Udalaren esanetan, Mankomunitatea eta Gipuzkoako Urak arduratu beharko liriateke, baina horretarako jakin behar da noiz eta nondik botatzen dituzten zabor poltsak isunak ipintzeko. Beraz, bizilagunek baldin badakite salaketa bat ipini edo udaltzainei jakinaraztea litzateke bide egokiena kontrol zorrotzagoa egiteko.



**Karakola irristakor:** Juan Mugertza kalea, pista beltza, konpontzen ari dira eta honen harira bertako bizilagun batek galdera egin du: “Trenbide kalea eta Juan Mugertza kalea elkartzen dituen karakolzubia irristakor egoten da euria egiten duenetan. Orain obretan ari direla, ba al dako karakola konpontzeko asmorik?”. Udaleko Hirigintza Sailetik jakinarazi digute beste toki batzuetan tratamendu bereziak egin arren, oraingoz ez dutela ezer aurreikusi karakolerako, baina agindu dute datorren urteko aurrekontuetan erreparatuko diotela gai horri.



## ▶ NEREA MARTINEZ

Europako Batasunak 15.000 Interrail txartel oparitu zituen 18 urteko gazteen artean, Europako aniztasuna ezagutu eta hobeto ulertzeko aukera izan zezaten. Europan barrena trenez bidaiatzeko balio duen txartela eskuratzeko galdetegi bat bete behar zen Interneten, eta 100.000 gazte europarrek hartu zuten parte. Halaxe egin zuen Nerea Martinez elgoibartarrak eta txarteletako bat tokatu zitzaion. Bakarrik egin zuen bidaia. Administraritza eta Enpresa Zuzendaritzako bigarren maila ikasten ari da Bartzelonan eta handik eman digu bere bidaiaren berri.

- ASIER ORBEA -

# “Leku askotariko jendea ezagutzea izan da Interrail bidaiako gauzarik onena”

### ◆ Ze herrialde aukeratu zenituen Interrail bidaiarako?

Frantzia, Belgika, Herbehereak eta Alemania. Txartelak hila-betez bidaiatzeko aukera eman arren, hamabi egun bakarrik nituen, ikasturte hasierarako Bartzelonan egon beharra nuelako. Paris, Belgikako Gante eta Brujas hiriak, Amsterdam, eta Alemaniako Berlin, Munich eta Karlsruhe bisitatu nituen. Karlsruheetik itzuli nintzen Elgoibarrera, trenean 12 orduko bidaia eginda. Lepoan jartzeko puzgarri horietako baten falta igarri nuen, eta damutu nintzen eraman ez izanaz, amak aholkatu zidan moduan. Loak erraz hartzen zaitu trenean eta lepoko luxazioa egin nuen ia batera eta bestera ematen nituen burukadekin (kar, kar, kar...). Interrail egiteko asmoa duten guztiei gomendatzen diet puzgarria. Trenean ordu asko pasatzen dira, eta denak ez dira erosoak.

### ◆ Bakarrik bidaiatu duzun lehen aldia izan al da?

2015ean hiru asteko bidaia egin nuen Irlandara, Jaurlari-tzak ingelesa ikasteko atera zuen beka bati esker. Batxilergoan nengoela Alemaniara elkartruke bat ere egin genuen. Horietan, baina, ez nintzen bakarrik egon. Iaz bidaiatu nuen bakarrik estreinakoz, Mazedoniara, nire neba bisitatzerako. Bakarrik egin dudana bidaia potenteena Interrailera izan da ordea. Lagun

artean asko gozatzen dut, baina bakarrik ere primeran moldatzen naiz.

### ◆ Gaztea, emakumea eta bakarrik bidaiatzen. Zein izan zen inguruko erreakzioa?

Oso zabaldua dago emakumeek bakarrik bidaiatzea arrisku-tsua dela eta baita bakarrik bidaiatzean traba asko izaten diren ustea, baina gaur egun inoiz baino errazagoa da bakarrik bidaiatzea, eta are gehiago egon naizen herrialdeetan. Bidaia egin eta gero, argiago daukat, eta probatzeko gomendatzen diet denei. Nire inguruan denek ez dute berdin ikusten, baina. Lagun guztiek galdetzen zidaten ez al zidan beldurrik ematen. Euren buruak ez zituztela kapaz ikusten esaten zidaten. Emakumea izatearena plus bat da, bai, baina 18 urterekin bakarrik bidaiatzeak errespetua ematen du. Ulertzen ditut lagun beldurak, duela urtebete neu ere ez nintzelako beharbada prestatuta egongo. Bartzelonara bizitzera etortzeak asko lagundu dit, eta gainera, beti egon naiz gauzak bakarrik egitera ohituta. Bakarrik bidaiatzeari baino gehiago gauzak galtzeari nion beldurra, desastre hutsa naitzelako. Arropa nonbaiten galdu eta hotza pasatuko dut, txartelen bat galdu eta ezingo dut bidaia jarraitu... horrelakoak ziren nire



## *“Bakarrik bidaiatu arren, ez naiz bakarrik sentitu”*

kezka. Etxekoek motxilan sartu zizkidaten beldurra bakarrik neramatzan. Kontuz ibili honekin edo harekin, kontuz norekin berba egiten duzun, gaez ez ibili... Gainera, albisteetan ikusten zuten Amsterdamen eraso bat egon zela-edo, eta kezkatu egiten ziren. Turista asko hartzen dituzte hiri handietan, eta segurtasun sentazioa handia da.

♦ **Kuadrillak indar handia du Euskal Herrian. Lagun talde askok elkarrekin antolatzen dituzte bidaiak. Bakarrik bidaiatzea ez dago oso zabaldua gure kulturaren. Anglosaxoiak eta ohitua daude beharbada. Zer ikusi duzu zuk?**

Bai, egia da kuadrillan ibiltzeko ohitura horrek baduela bere pisua eta eragina. Bakarrik bidaiatu duten neska gutxi ezagutzen ditut hemen. Aldiz, topatu ditut bakarrik bidaiatzen ari ziren neska ingelesak, alemaniarak edo poloniarak.

♦ **Bakarrik ibiltzeak abantailak ere baditu.**

Halaxe da. Jendearengana hurbiltzera behartuta zaude, zabalzera. Egun eta hiri batzutan primeran moldatu nintzen bakarrik, nire erritmorarekin. Jendearekin harremantzeko beharra ere sentitzen nuen. Bi egoerak uztartzea da onena; une eta gauza batzutarako, hobe bakarrik, eta beste batzuetan, merezi du esperientziak norekin partekatu izatea. Bidaiak bakarrik hasi nuen, bai, baina ez naiz sekula bakarrik sentitu; lagunartean ibili naiz han eta hemen.

♦ **Non egin dituzu lagun gehiago, trenetan pasatako orduetan ala ostatuetan?**

Gasentzako ostatuetan, dudarik gabe. Tren guztiak egunez hartu nituen eta bakoitza bere munduan sartuta joaten zen trenean. Hori bai, Belgikan, adibidez, egin dituen lagun kataluniar eta galiziar batzuk tranbian. Paris, Gante, Amsterdam edo Munich moduko hiri ederrak bisitatu ditut estreinakoz, baina leku askotariko jendea ezagutzea izan da esperientzia onena.

♦ **Blog batean eman duzu zure bidaiaren berri eta sare sozialak garrantzitsuak izan direla diozu bertan. Nola eta zertarako erabili dituzu?**

Facebook eta Instagram erabili ditut. Bakarrik nindoanez, ailegatzen nintzen lekuetan Facebookeko lagun taldeetara batzeko esan zidan amak. Gaztediaren Europako atarian aurkitu nuen talde bat. ‘Gaur Berlinen nago. Norbait animatzen al da hiria gaez ezagutzera?’ eta antzerako mezuak jartzen ditu Terrrailean dabilen jendeak. Planak egiteko eta elkarrekin geratzeko plaza birtuala da. Joan nintzen ia leku guztietan erabili nuen. Instagramen, berriz, ia egunero jartzen nuen argazkiren bat etxekoek nondik nora nenbilen ikus zezaten. Aldi berean, lagunak gomendioak egiten zizkidaten. ‘Parisen zaude? Ba ez joan hona; garestia da, eta gainera ez du merezi’, eta antzerakoak.

♦ **Nolakoa da intterraileko bidaiari baten egunerokoa?**

Lekuaren arabera da. Sekula egon gabekoak ere badaki Parisen ikusi beharreko leku mitiko asko daudela: Notre Dame, Eiffel dorrea, garaipenaren arkua... Bi egunetan ez du horiek baino askoz gehiago ikusteko denborarik ematen. Ganter buruz,

berriz, ez nekien ezer. Mapei begira eta jendeari galdetuta ezagutu nuen hiria. Inprobisatzea gustatzen zait. München halaxe jokatu nuen. Trenean ez

zegoen Internetarako konexiorik eta ezin izan nuen begiratu zein ziren lekurik esanguratsuenak. Gaez ailegatu nintzen, eta hurrengo goizean ez nekien nondik hasi ere. Parte zaharreko eraikinak ikusten hasi nintzen, eta, nahigabe, Ingelesen jardinerara ailegatu nintzen, lorategi erraldoia eta ezustekoz betetakora. Eisbach ibaian ikusi nituen surfistekin harridura geratu nintzen. Izugarri gustatu zitzaidan eta egun guztia pasa nuen han. Pentsatu nuen gustura nengoenez ez neukala zertan beste ezerekin bila hasi. Münchenko elizak eta eraikin ikusgarrienak ikusi gabe jarraitu nuen nire bidaiak, damurik gabe. Hiri horren oroitzapen oso ona daukat. Ez dago dena ikusi beharrik; ez dago batetik bestera zoroaren pare ibili beharrik. Ikasi dut patxadaz hartzea eta inprobisatzea dela onena.

♦ **Horrenbeste janari laster ez ei duzu inoiz jan?**

Saiatzen nintzen lekuan lekuko jatekoak probatzen. Crepak, Parisen, eta saltxitxak, Alemanian, baina gosea edozein unetan iristen da. Gerta daiteke jateko garestiak bakarrik dauden lekuren batean gosetzea, eta gainera, zer eskaintzen duten ere garbi ez izatea. McDonald's eta antzerakoak beti daude begien aurrean. Horietan hanburgesa bat jatea da gosea baretzeko modu azkarrena, erosoena eta segurua. Gauza asko daude ikusteko hirietan eta denbora gutxi daukazu; hortaz, janari lasterra da aukerarik onena, ahal den denborarik gutxien galdu eta zure bidean aurrera jarraitzeko.

♦ **Historia eta kultura handiko hiriak daude Europa zaharrean, baina parrandarako leku onik topatu al duzu?**

Bai, horretarako topatu nuen tartea. Ganten eta Berlinen irten nintzen parrandan. Tabernaz taberna ibili nintzen Ganten, ni baino urte batzuk zaharragoak ziren espainiar batzuekin. Juerga lasaia izan zen, baina. Berlinetara bai izan zela festa!” Hiru neska ingelesekin irten nintzen, eta elektrizitate fabrika izan zen eraikin batean antolatu zuten jai batera joan ginen. Oso toki alternatiboak daude Berlinen. Modu desberdinean bizi den jendea dago han, eta festarako ere ohitura desberdinak dituzte. Techno musika jartzen zuten, eta espero nuena baino hobeto pasa nuen. Hori bai, beti daukazu buruan etxetik urrun eta bakarrik zaudela eta hobe dela parrandan balazta zapalduta ibiltzea, zainduko zaituen inor ez daukazulako alboan.

♦ **Hiri eta herrialde gehiago bisitatzeko gogoz itzuli zara?**

Bai horixe! Luxenburgoko, Amberes, Praga edo Kopenhage moduko hiriak edo Polonia ikusi gabe gelditzeak pena eman zidan. Ikusi gabekoak ikustera itzuliko naiz, ziur. Bidaiatzeko gosea piztu dit Terrrailak. Distantziak laburtzen ditu. Berlinen nengoela, gertu ikusten nuen Poloniaraino joateko aukera; ‘hemen ondoan dago, barren!’ esaten nuen. Halako bidaiak batek begiak irekitzen dizkizu. Besteekin hitz egineda konturatzen zara denak ez direla gu bizi garen moduan bizi eta beste ohitura batzuk dituztela.

# Iker Eskibel eta Amaia Urkidi nagusi Idotorbeko igoeran



Hego haizearekin eta beroarekin jokatu zuten Julian San Juanen Oroimenezko 27. San Pedroko igoera. Iker Eskibel izan zen azkarrena, hirugarren urtez jarraian. Emakumezkoetan Amaia Urkidi gailendu zen. Lagun Taldeak antolatutako lasterketan 58 txirindularik hartu zuten parte (iaz 45 izan ziren) eta bide bazterretan ikusle asko batu ziren. Eskibel eskoriatzarrak hamahiru minutu eta 47 segundoan egin zuen igoera, berak iaz ezarritako errekorretik (13:17) minutu erdira. Azkenengo metroetan lehia polita eskaini zuten bi txirindulari elgoibartarrek osatu zuten podiuma. Iban Gonzalezek egin zuen bigarren (14:00) eta Imanol Alvarez sailkatu zen hirugarren postuan (14:08). Edizio askotan emakume bakar batek ere parte hartu ez arren, aurtengoan hiru emakume lehiatu ziren. Amaia Urkidi izan zen azkarrena, 17 minutu eta 35 segundoko denborarekin. Hala, gertu ibili arren, ez zuen ondu Maite Maiorak 2016an ezarri zuen errekorra (17:22). Urkidik Quebrantahuesos proba entzutetsua irabazi zuen udan. Argazkiak, bideoa eta sailkapenak ikusteko: [barren.eus](http://barren.eus).

## Elgoibarko futbolari gaztetxoak Realarekin entrenatzen izan dira



Realak C.D. Elgoibar klubeko alebin mailako lau jokalaritatu zituen entrenamendu saioetan parte hartzera. Markel Gonzalez, Ibon Viña, Asier Etxeberria eta Peru Beziartua izan ziren Realarekin entrenatu ziren gaztetxoak. Elgoibarko taldeak Realarekin du akordioa eta kadete mailako bi jokalaritatu ere badabilta Donostiako taldean: Luken Beitia eta Mohammed Gourmat. Era berean, kategoria desberdinetako sei jokalaritatu joan dira Elgoibartik C.D. Eibar taldera. Elgoibarko futbol taldeko arduradunek azaldu dutenez, Eibarrek edo Athleticek C.D. Elgoibarreko jokalaritatu baten inguruko interesa agertuz gero, Realari jakinarazten diote lehenik, bien arteko hitzarmena dela-eta.



## Julen Urruzola Espainiako selekzioaren deialdian

Promesa mailako Espainiako eskubaloia selekzioak bi partida jokatu ditu Alemaniako selekzioaren aurka, azaroaren 14an eta 15ean, Alemanian. Francisco Marti hautatzaileak 16 jokalaririk eraman ditu Alemaniara, eta horien artean da Sanloko jokalaria Julen Urruzola. Urruzolak ezker hegalean jokatzen du, eta 201 zentimetro neurtzen ditu.

## Xake eskolak Mendaron

Lehen Hezkuntzako umeentzat eta 13 urtetik gorakoentzako xake eskolak emango dituzte Mendaron astelehenean. LH1 eta 2. mailakoentzat 17:00etatik 18:00etara, LH3tik 6ra bitartekoek 18:00etatik 19:00etara eta nagusiagoek 19:00etatik 20:00etara jasoko dituzte eskolak. Izena emateko xake-mendaro@gmail.com helbidera idatzi edo 653 715 375 telefono zenbakira deitu.



## Eli Ibarra Athleticceko Genuine taldea entrenatzen ari da

Espainiako Liga Profesionalak iaz martxan jarritako egitasmoa da Genuine Liga. Adimen urritasuna duten jokalariez osatutako taldeak lehiatzen dira kirol inklusiboa bultzatzeko sortu zuten txapelketan. Eli Ibarra da Athleticceko Genuine taldeak dituen hiru entrenatzaileetako bat. Ibarrak Espainiako Futbol Federazioaren entrenatzaile titulua atera zuen udan, futbola laga berritan. Izen handiko futbolari ohiak izan zituen promozio kide: Xabi Alonso, Raul Gonzalez, Aitor Lopez Rekarte, Xavi Hernandez, Victor Valdes edo Julio Baptista, besteak beste.



## Hiru Handiak probarako 35 elgoibartar daude izena emanda, eta Maite Maiora mendarorria da irabazteko faboritoetako bat

Mendiko lasterkarien artean erreferentzia da bi urtean behin jokatzen den Hiru Handiak, duen tradizioagatik eta ibilbideagatik -Gorbeia, Anboto eta Aizkorri zeharkatzen ditu 101 kilometroko probak-. 21. ekitaldia Murgiatik hasiko da gaur, 00:00etan. Irteeran 1.700 mendizale izango dira —3.000 eskari baino gehiago jaso zituzten antolatzaileek—, eta 35 elgoibartar daude izena emandakoen artean. 2016an hamazazpi elgoibartarrek amaitu zuten proba eta seigarren egin zuten Ander Zulaika mendarorriak. Beste mendarorri bat, Maite Maiora, garaipenaren lehian arituko da estreinako parte hartzean. "Hasieran ez zegoen nire asmoen artean, baina denboraldi aldrebes honi bukaera polita ematea gustatuko litzaidake. Hiru Handiak aukeraketa polita izan da", adierazi du. Ez da lehen aldia horrelako distantzia bati aurre egin behar diona, baina beldurra baino gehiago "errespetua" ematen dio.



# “Ikaragarri ari naiz gozatzan musikaren inguruan egin ditudan harremanekin”

## ▶ JON GURRUTXAGA MUSIKARIA

Ibilbide luzea egin du musikan Jon Gurrutxagak (Elgoibar, 1978). Arima Beltzak-en saioetik gaur arte proiektu askotan ibili da, eta ‘Kateak’ lana argitaratu du berriki, Gaztelupeko Hotsak zigiluak abian jarritako Lokatzetan Play singleen bildumaren barruan. Bi formatotan eman du diskoa: binilozko singlean eta CDan. ‘Kateak’ eta ‘Desitxuratzuz’ kantuak batu ditu biniloan, eta horiez gain beste bi hauek eman ditu CDan: ‘Unearen oraina’ eta ‘Wrinkled shirts and jackets’. Diskoaren aurkezpen-lanak eginda, gaur emango du estreinako zuzeneko, Ondaruko Moby Dicken, 20:00ean.

- AINARA ARGOITIA -



Arg.: Jairo Berbel

### ♦ Zerekin zatoz lan berri honetan?

Musikalki oso ezberdinak diren lau kanturekin nator. Ez nituen rock disko edo disko elektriko baterako ikusten, baina aldi berean, ez nituen nahi ordenagailuko karpeta batean ahaztuta laga, interesgarriak iruditzen zitzaizkidalako. Eta formato txikian nator, hein handi batean lanak berak baldintzatuta. Egia da, baina, Gaztelupeko Hotsak-en Lokatzetan Play singleen bilduma ere xarma handikoa iruditzen zitzaidala eta bilduma horren barruan argitaratzeak ere betetzen ninduela. Aurkezpen aldetik, biniloan ematea beste gauza bat da, politagoa askoz, eta diskoa jartzearen errituala bera ere berezia da. Pozik nago lehenengo biniloarekin.

### ♦ Lau kantu dira. Nolakoak?

Orain artean egin ditudanen aldean ezberdinak dira hauek, baina badute euren artean halako lotura bat. Egia da lau kantuak ezagutu egin behar direla eta hitzetan barneratu behar dela lotura hori ikusteko, baina badute, eta katea hitzak ere jasotzen du lotura hori.

### ♦ Kantuak sortzeko prozesua nolakoa izan da?

Nik beti esan izan dut abeslari izan naizela beti, beste ezeren gainetik. Umetatik kantatzea gustatu izan zait gehien. Bateria jotzen hasi nintzen gero, baina gertatzen zitzaidana zen bateriarekin ez nuela armoniarik, eta abestu nahi banuen, instrumentu armoniko bat behar nuela. Hala hasi nintzen gitarra ikasten, melodiak abesteko oinarri bat izate aldera. Lehen, kantuak egiteko orduan, melodiak sortzen nituen ahotsarekin lehendabizi, eta gero, lagun gitarra-jolearen bat inguratzen nuen horri forma emateko. Orain, neuk kontrolatzen dut prozesua hasieratik. Akorde batzuk jotzen ditut gitarrarekin eta horren gainean sortzen dut melodia. Eta behin oinarria jarrita, janztea eta edertzea izaten da ondorengo lana, eta egiteko horretan sartzen dira lagunak. Zorionekoa naiz, oso lagun musikari onak ditudalako gainera. Hitzak, berriz, amaierarako lagatzen ditut. Zaintzen ditut hitzak ere, jakina, baina me-

lodiarekin asmatu behar izaten dut aurrena.

### ♦ Kantuak “edertzeko” zeintzuk lagun inguratu dituzu oraingoa?

Hitzak, biniloko bi kantuenak, Xabi Lasak idatzi dizkit, eta musikariaren artean lagun kuadrilla ona izan dut: Patxi Zabaleak lagun du gitarra elektrikoarekin *Kateak*-en, eta Patxiz gain, Iñigo Gorritxategi (baxua), Urbil Artola (dobroa), Markos Coll (aho soinua) eta Peio Gorrotxategi (teklatura) izan ditut ondoan.

### ♦ Zuzenekoetarako formatoa zein izango duzu?

Bikoa izango gara zuzenekoetan. Urbil Artolarekin emango ditut kontzertuak. Egia esan une honetan ikaragarri ari naiz gozatzan, musikaren inguruan egin ditudan harremanekin eta zuzenekoetarako prestakuntzekin. Kantuak forma akustikoak dituzte, eta zuzenean, nahikoa ondo defendatu ditzakegu formato txikian. Gaur dugu lehenengo kontzertua, Ondarrun, eta azaroaren 8an Bilbon joko dugu, Bira aretoan. Elgoibarren, azaroaren 10eko lotu dugu kontzertua, Sotoan.



# “Eskulturak egitea gauza serio bat izan arren, jolas bat da niretzat”

## ► MERTXE SUESKUN ESKULTOREA

Iruñearra da Mertxe Sueskun eskultorea, baina elgoibartarretik ere badu, izan ere, 26 urtez bizi izan zen herrian. Egur arte taldean hasi zen Fernando Beorlegirekin, Debako eskolan egin zituen hainbat urte gero, eta Donostiako Artelekun ere jardun zen. Mataderia eta Olasoko lokala izan zituen lantoki, eta gaur egun Iruñean bizi bada ere, bere obrak Elgoibarrera ekarri du berriro.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



♦ **Edukiztaileak, edukiak eta beste kontu batzuk erakusketa ipini duzu Elgoibarren. Zein da zure azken lanen funtsa?**

Oso obra intimista da, nire-nirea, baina ez diot aparteko garrantzirik eman nahi artelan bakoitzak sakonean gordezten duenari. Eginda dauden objektuak hartu eta aprobeztatzen ditut obrak egiteko, testuinguru naturaletik aterata. Esaterako, egurrezko kaxa, kartoi eta dentisten kotoi borobil luzexkekin eginak dira lan batzuk eta beste batzuk zigarroen iragazkiekin. Batzuk nolabaiteko ertza dute, eta besteak, erabat lauak dira ikusle arruntei antzekoak iruditu arren.

♦ **Beste material batzuk ere erabiltzen dituzu, ezta?**

Baditut orraziekin egindako lanak eta arkitektuen maketetako panpintxoak ere erabiltzen ditut. Alabastroarekin ere egin nituen piezaren batzuk garai batean, baita kartulinekin ere. Orain, pospoloekin eta borragomekin ere ari naiz. Jendeak ez luke pentsatuko horrelako materialekin eskulturak egin zitezkeenik eta horrek berezi egin ditzake nire lanak.

♦ **Aurreko obrekin alderatuta, bada ezberdintasunik.**

Bolumenetan ezberdintasun handia dago. Lehengoak tapizekin zuten zerikusia; askoz handiagoak ziren, eta eskultura itxura gehiago zuten beharbada. Orain materialak aldatu egin ditut, eta lanak oso ezberdinak izan arren, igartzen da nireak direla. Erakusketara ekarri ditut lehen egin dako lanen batzuk ere, baina markoa jarri eta erabat aldatu diet itxura.

♦ **Erakusketara datorrenak eskulturak baino gehiago koadroak ikusten ari dela pentsa dezake, ezta?**

Eskulturak hiru dimentsio ditu, eta hauen sakonera oso txikia da. Gainera, hauskorak izanik, markoa jarri diet. Jendeak gustura ikusi du erakusketa, gauza berriak eta ezberdinak ikusi dituelako. Lan hauek egiteko emozioa eta arrazoia barnatzen ditut; gozatu egiten dut lanok egiten eta jolas serio bat izan arren, jolas bat da niretzat; bestela, utzi egingo nuke.

♦ **Eskultura zure ofizio edo zaletasuna da?**

Ni modu profesionalean aritzen naiz honetan, baina hain gutxi saltzen denez...

Ulertzekoa da zergatik ez duen jendeak honetan lan egiten. Nik bizimodu hau aukeratu nuen, eta beste batzuek bidaiatzen ematen duten denbora nik arteari eskaintzen diot. Eskulturak egiten ematen dut eguna.

♦ **Gaur egun nola ikusten duzu eskultura oro har?**

Munduaren neba-arreba pobreena da. Batik bat, laguntasun handiagoa beharko genukeen erakundeen aldetik. Nafarroan, esaterako, erakusketa bat jartzearen truke jaso nuen sormenerako diru-laguntza bat, baina ez da oso ohikoa. Erakundeei gustatzen zaie ikuskizun bat izatea -gurea bezalako erakusketak hala dira-, baina doakoa eta hori ez litzateke hala izan behar. Lekuak ere izan behar dira lanerako eta ikasteko -nik eskertu behar dut horrelako toki batean hasi nintzela-. Dena dela, toki horietan gutxienez kuota bat ordaindu behar da materialerako, bestela jendea oso eskura jartzen zaio eta eskulanari ez zaio behar besteko balioa ematen.

**LANA.....**

**Eskaerak**

Edozein lan egiteko prest nago, baita etxeko langile modura ere.

☎ 631 556 507/ 602 193 095

Lan egiteko prest nago. Adinekoak zaintzen esperientzia handia daukat.

☎ 631 822 545

Adinekoak eta umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 631 870 767

Adinekoak eta umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 632 699 477

Adinekoak edo umeak zaintzen zein etxeko garbiketetan lan egiteko prest. Egun osoz edo orduka.

☎ 642 313 078

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka zein etxeko langile moduan.

☎ 642 313 055

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka zein etxeko langile moduan.

☎ 642 811 251

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientzia handia daukat.

☎ 642 313 884

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientzia daukat.

☎ 655 435 136

Adinekoak zainduko nituzke. Etxe, lan-tegi edo komertzioetan garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Esperientzia handia daukat.

☎ 631 790 555

45 urteko emakume elgoibartarrak goizez etxeak garbituko lituzke.

☎ 636 223 142

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Astebukaeretan ere lan egiteko gertu.

☎ 632 239 398

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. Etxeko langile moduan zein orduka.

☎ 631 558 243

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan eta orduka jarduteko gertu.

☎ 612 476 921

Etxebizitza, lokal edo komertzioak garbitzen edo adinekoak eta umeak zaintzen lan egiteko prest. Asteburuetan edo orduka jarduteko gertu.

☎ 631 532 426

Umeak edo adinekoak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. Astebukaeretan ere prestutasun osoa.

☎ 688 738 823

Adinekoak zaintzeko prest egongo nintzateke. Esperientzia handia daukat barrietan eta obretan lan egiten.

☎ 674 579 736

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 632 088 084

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo baita etxeko langile moduan ere.

☎ 605 196 917

Adinekoak zainduz eta garbiketa lanetan aritzeko prest.

☎ 643 464 072

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten arituko nintzateke. Etxeko langile moduan nahiz orduka (gauetan ere bai).

☎ 631 891 709

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan etxeko langile moduan. Berehala hasteko prest.

☎ 638 200 936

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 612 222 362

Adinekoak zainduko nituzke etxeko langile moduan.

☎ 632 971 173

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan asteburuetan.

☎ 632 424 157

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten arituko nintzateke. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut.

☎ 688 712 075

**Eskaintzak**

San Lazaro egoitzan sukaldari bila gaitza ordezkapenak egiteko. Curriculum-ak, egoitzako harreraren utzi edo dir.elgoibar@biharko.org helbidera bidal daitezke.

**ETXEBIZITZAK.....**

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 646 390 826

Etxebizitza alokagai daukat Urazandin. Hiru logela, bi komun eta egongela. Dena kanpora begira. Gas naturala du.

☎ 630 653 772

**ESKOLA PARTIKULARRAK.....**

Matematika (LH, DBH eta Batxilergoa), kontabilitate, ekonomia... gaietako eskola partikularrak ematen ditut.

☎ 666 042 710

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak salteza: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak salteza: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

**administradores** Consejo Estatal de Colegios de Administradores de Empresas Entidad Pública Administraciones Locales Cantabria



**ROSA Mª PINTADO**

*Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*


**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Bizilagunen komunitate bateko aktari buruzko informazioa ohar taulan jartzeak etxejaberaren baten intimitateri eragiten badio, izan daiteke arazoa komunitatearentzat?**

Nire ustez, adierazpen eta informazio-askatasun eskubidearen eta ohore-eskubidearen arteko gatazkan adierazpen eta informazio askatasun eskubidea gailendu behar da. Izan ere, informazioa interes orokorrekoa eta egiazkoa izateak muga bakarra eduki behar du: ematen diren datuak informatzeko ematea bakar-bakarrik.

Kontuan hartu behar genuke ohore-eskubide hausterik ez dagoela aktan jasotakoak komunitateko etxejabeen interesekoak direnean eta aktaren edukia jabe guztiei zabaltzea araudiak zehaztutako ohiko funtzionamenduaren parte denean.

**Ondorioa: Bilera batean aktara eraman den informazio garrantzitsua ezin da ohore-eskubidearen urratze gisa hartu. Era berean ezin da eskubide hauste izan aktaren edukia zabaltzea. Izan ere, araudiaren arabera, komunitate baten ohiko funtzionamendurako ezinbestekoa da jabeen bilera batean hitz egingdako gai garrantzitsuen edo hartutako erabakien berri ematea. Komunitate guztietan akta baten bidez jakinarazi eta zabaltu behar da informazioa, prozedura legalak hala ezartzen duelako.**





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.




**1951n jaiotako elgoibartarrok** kinto bazkaria egingo dugu azaroaren 10ean. 13:00etan Kalegoen plazan elkartu eta bazkaria Karakate jatetxean egingo dugu gero. Izena eman nahi duenak 40 euro sartu beharko ditu azaroaren 8a baino lehen Laboral Kutxako zenbaki honetan: ES75 3035 0007 2100 71136035. Transferentzia bidez edo leihatilan egunero 10:30ak baino lehen. Animatu denok, ondo pasatuko dugu-eta.



Egun zoragarria pasatu genuen zuen ezkontzan. Zorionak Idamako lantaldearen partez.



Zorionak, **Lea**, astelehenean 2 urte beteko dituzulako. Muxu piloa etxeko guztien partez.



Zorionak, **Xabi** eta **Eñaut**, zuen 4. eta 5. urtebetetzean. Muxu handi bana etxeko guztien partez.



Zorionak, **Xenki** eta **Goiuri**, familiakoen eta batez ere Markel, Oinatz, Oxel, Aratz, Aimar eta Peruren partetik.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.

Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.

Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



## IKASBAI akademia

**667 261 248**  
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akademiaelgoibar@gmail.com](mailto:akademiaelgoibar@gmail.com)

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

## Uzuri

ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)







**19€**

(3. Jarrilla orobok barne)





**Halloween jairako fantasiazko eta koloretako lentillak**

## 19 BARIXAKUA

**17:30** Kiribil. 2 urtetik 6 urte bitarteko haurrentzat. Maalako parkean. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

**18:30-20:30** Odol ateratzeak. Elgoibarko Odol Emaileen Elkartearen. Osasun Zentro ondoan.

**20:30** Antzerkia: *13 y martes*. Glu Glu produkzioak. Herriko Antzokian.

## 20 ZAPATUA

**10:00-14:00** Nagusilanen inguruko informazio puntuak herrian barrena.

**11:00** 2018ko ondarearen Europako jardunaldiak: *Estarta eta Ecenarro, Sigma josteko makinak. Emakumeen lan munduratzea*. Makina Erremintaren Museoa. Antolatzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.

**11:00** Gazta astea. Mausitxa baserrira bisita. Abeltzainen bizimodua eta gaztaren prozesua bertatik bertara ezagutzeko. Izena emateko: Debemenen bulegoan. 943 744 067

## 21 DOMEKA

**9:00** Irteera mikologikoa Morkaikorekin. Antolatzailea: Karakate Mikologia Elkartearen. Kalegoen plazan.

**11:00-14:30** Azoka solidarioa: azoka, umeentzako ekintzak, aurpegiak margotzea eta Ces sistemari buruzko hitzaldia. Antolatzailea: Katueder elkartea. Maalako parkean.

**16:30** Antzerkia: *Mendi tontorrean*. Txalo Produkzioak. Herriko Antzokian.

## 23 MARTITZENA

**19:00** Herri batzarra. Antolatzailea: EHBildu. Gaia: 2019ko Udal Huteskundeak. Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 24 EGUAZTENA

**19:00** Liburutegiaren Eguna. Elgoibarko Gotzon Garate liburutegiak egun hauetan mailegu-zerbitzua txartelarekin erabiltzen dutenen artean tableta zozkatuko du.

## 25 EGUENA

**19:00** Meditazioa eta jardunaldia: *Gizarte berritzaile eta dinamikoen agerria*. Gidaria: Jose Cruz Igartua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Isiltasun Eskola.

**20:00** Udazkeneko mendi emanaldi zikloa: *Pyrenees Stage Run: Gure mendi bidaia*. Ainhoa Lendinez eta Igone Campos. Musika Eskolako auditoriumean. Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Elkartearen.

## 26 BARIXAKUA

**18:00** Foodtruck jaiaren hasiera. Maalako parkean. Antolatzailea: Kultura Saila.

**18:30-20:00** Txokolatada. Antolatzaileak: Barren azokako saltzaileak. Merkatu plazan.

**18:30** Argazki erakusketa: *Islandia*. Argazkilaria: Alex Berasategi. Astelehenerdik larunbatera, 18:30etik 20:30era. Azaroaren 10era arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzailea: Ongarri Argazki Taldea.

**20:00** Kontzertuak foodtruck jaiaren. Maalako parkean. Antolatzailea: Kultura Saila.

**20:30** Aurrez grabatutako opera emanaldia: *Madam Butterfly*. Herriko Antzokian.

**21:30** Zine-foruma. Filma: *Las vidas de Gace*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Elgoibarko Kultur Etxean. Antolatzailea: Haizea emakume taldea.

**22:00** Antzerkia: *Logikomitoak*, Taupada antzeztaldea. 40 urte antzerkiaren bihotzean. Bolatokiko parkean. Antolatzailea: Kultura Saila.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

  
RPS233/13  
Tel.: 943 366 377  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

RPS 271/12  
  
*Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar*  
943 531 953  
669 565 745

  
RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

**NATUR HOUSE**  
**Ainara Iriondo Ansola**  
GIZA ELKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA  
  
Toribio Etxebarria, 22  
Eliver  
Tel. 943 106 020  
Mug. 677 551 850

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
19 BARIXAKUA	20 ZAPATUA	21 DOMEKA	22 ASTELEHENA	23 MARTITZENA	24 EGUAZTENA	25 EGUENA	26 BARIXAKUA
Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Etxeberria</b>	Egunez <b>Etxeberria</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>*Ibañez</b>
Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>

**\* Fernandez:**  
Herriko enparantza 4,  
Garagarza (Mendaro)  
943 756 142

**\* Ibañez:**  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

**\* Oruesagasti:**  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gabez: 22:00-09:00**  
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)  
943 254 410

## Zinea (Herriko Antzokian)

### 'Oreina'

20 Zapatua, 19:00 (azpituak gaztelaniaz)  
20 Zapatua, 22:15 (euskaraz, azpitu gabe)  
21 Domeka, 19:00 (azpituak gaztelaniaz)  
22 Astelehena, 21:30 (azpituak gaztelaniaz)



### 'In dialogue'

(Elgoibarko Herritarren  
Bizikidetzeta taldea eta Ongarri)  
25 Eguena, 21:30



Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

**Jeku edero**  
hortz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

**fisio&más**  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea  
Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 933 628  
www.fisio-mas.com  
RPS 112/18

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Deba  
Tel.: 943 192 192

**FUB** Fernando  
Urizar  
R.P.S.: 32/17 Barandiaran  
Medikuntzan doktorea  
Psikiatrian espezialista  
Psikoterapia psikoanalitiko  
Psikosomatika  
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)  
Bailen kalea, 9. 1. ezk. (Bilbo)  
furizar1@yahoo.com  
615 715 404



**A**ngel Bazterretxea abadearen bildumako argazkia duzue aste honetako hau. Argazkiko hamar neskatila hauek eskola sa-soian atera zuten argazkia, baina ez dira gai zehazteko zein urtetakoa den eta jabeak berak ere ez dauka datatuta. Mendaroarrak dira batzuk, baina badira elgoibartarrak ere, sasoi hartan eskolara Mendarora joaten zirenak. Ikus ditzagun nortzuk diren ba: Goiko lerroan: Mertxe Mugertza, Consuelo Garcia (+), Ignacia Iriondo, Conchita Jauregi eta Maria Angeles Urain. Eta beheko lerroan: Maria Jesus Urain, Belen Ansola, Mari Carmen Zubizarreta, Maria Dolores Zezeaga (+) eta Juanita Ulazia. Garagartzako plazan egindakoa da argazkia. Auzo horretantxe zuten eskola ere.

## Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

- e-postaz bidali: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)
- Barreneko bulegora ekarri: **Kalebarren plaza, 2**





Innovation  
that excites



APROBETXATU  
WLTP ARAUDI BERRIA ETA  
LORTU **NISSAN X-TRAIL BAT**  
**LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!**  
**GAURSAN BAKARRIK.**

## **GAURSA**

**Otaola Hiribidea, 22 - 20600 Eibar - Tel. 943 82 09 74**

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO<sub>2</sub> isurpenak: 129 - 149 g/km. Europar Batasuneko araudiaren arabera homologatutako kontsumoa.

# etxegain

BIZIGUNEA

... ETA ORAIN  
2 LOGELAKO ETXEBIZITZAK

145.000 € -TIK HASITA

## Gorenean

WWW.ETXEGAIN.COM

# elgoibar

2, 3 ETA 4  
LOGELAKO  
ETXEBIZITZAK

TERRAZA ZABALAK ETA  
PERTSONALIZATZEKO MODUKO  
TXOKOAK DITUZTEN BEHEKO SOLAIRUAK

LOGELAK  
10 M<sup>2</sup>-TIK  
GORAKOAK

EGONGELA  
GUZTIAK 20 M<sup>2</sup>-TIK  
GORAKOAK

IKUSPEGI ZABALAK  
DITUZTEN TERRAZA  
HANDIAK GARAIERAN

**etxegain** goi-mailako sustapena duzu. Ikuspegi inbidiarritz gozatzeko aukera ematen duen goragune batean, goi-mailako eraikin bati dagozkion materialez egina, eta betiere GRUPO EIBAREK eskaintzen duen zerbitzu-maila gorenarekin, zure etxebizitza pertsonalizatzeko aukera zabalekin.

**etxegain** en prezioak soilik dira baxuak, eta horregatik da goi-mailako higiezin-inbertsioa.



**GE** grupo eibar  
inmobiliario

943 31 66 11

E.: comercial@grupoelbar.com  
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

689 66 08 01

ORPEA FINANZIALA POR:

**bankoa** | Groupe  
Crédit Agricole